



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspenna: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenna, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	1/36

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK ETA XEDEA	2
2.- PROZEDURAREN EDUKIA	3
2.1.- Kontuan hartu beharreko fenomenoak.....	4
2.2.- Atalase-balioak, abisu-mailak eta zonifikazioa	4
3.- JARDUTEKO PROZEDURA.....	16
3.1.- Prozedura aktibatzea	16
3.1.1. Komunikatuak sortzeko arau bereziak	17
3.2.- Jarraipen-fasea	19
3.3.- Aurreikusitako muturreko fenomenoaren maila zehaztea	19
3.4.- Jarraipen-batzordeak	20
3.4.1. Jarraipen-batzordeen osaera	20
3.5.- Jarduerak abisu-maila desberdinen aurrean.....	22
3.5.1. Maila horia	22
3.5.2. Maila laranja	22
3.5.3. Maila gorria.....	23
3.6.- Komunikatuak zabaltzea	24
4.- PROZEDURAREN BERRIKUSPENA	25
I. ERANSKINA – UHOLDE MAILAK UR-EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOETARAKO ETA UAEE-ETARAKO	26
II. ERANSKINA – ABISUEN MAILA ZEHAZTEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK ETA ALDAGAIK.....	29
III. ERANSKINA – PLANEN, PROGRAMEN ETA PROZEDUREN ZERRENDA	32
IV. ERANSKINA – KOMUNIKATUAK JASOKO DITUZTEN ERAKUNDEEN ETA ZERBITZUEN GUTXIENEN ZERRENDA (*)	33



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspenna: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	2/36

1.- AURREKARIAK ETA XEDEA

Dokumentu honek garatzen duen prozeduraren bidez meteorologia kaltegarriarekin loturiko abisuak/alertak/alarmak sortzen dira eta; halaber, esku hartzen duten erakundeek artean informazioa trukatzeko beharrezko mekanismoak ezartzen ditu. Bestetik, abisu/alerta/alarma horien jarraipena egiten du, horretarako erakundeek aktibazioak bideratzeko neurriak zehaztuz eta, horiei aurre egiteko prebentziozko lehenengo jarduerak burutze aldera, orokorrean euskal herritarrek jakinaren gainean jarritik.

Dokumentu hau prestatzeko Europako *EMMA* (European Multi-service Meteorological Awareness) proiektuan oinarritu gara, haren helburu nagusia herritarrei ematen zaien informazioaren formatua sinkronizatzea baita, Europa osoan fenomeno meteorologiko kaltegarriak lotutako arrisku-pertzepzioa antzerakoa izan dadin.

Oro har, fenomeno meteorologiko kaltegarritzat jotzen dira pertsonen zuzenean edo zeharka kalteak eragin diezazkieten edo kalte material nabarmenak eragin ditzaketen gertaera atmosferikoak. Zentzu zabalagoan, inguru espazial zehatz batean, gizakien jardura nabarmen alda dezakeen edozein fenomeno ere halakotzat har daiteke.

Ondorioz, kaltegarriak dira, berez, meteorologiako aldagaiak muturreko balioetara iristen diren egoerak. Bestalde, potentzialki kaltegarriak izan daitezke bestelako kalteak eragin ditzaketen egoerak, nahiz eta horiek meteorologikoak ez izan. Baliteke, halaber, normalean kaltegarritzat jotzen ez den egoera bat ezbehar larria izatea, ezusteko beste inguruabar batzuk aldi berean azaltzen badira. Kasu hori dugu, esate baterako, zenbait hondamendi natural edo giza jardueren ondoriozko istripu batzuk gertatzen direnean.

Fenomeno Meteorologiko Kaltegarrien Iragarpena, Zaintza eta beroriei aurre egiteko Jarduera Bideratzeko Prozeduraren xedea da, dugun esperientzia oinarrituta, jardura normalizatuen bidez hainbat eskakizuni erantzuna ematea sistemaren estaldurarik eta eraginkortasunik handiena bermatuz; baita zaintza "integralaren" arazoa era egonkorrean konpontzea ere (muturreko fenomeno oro, edozein garaitan, lurralde osoan, edozein unetan); hain zuzen, ager daitezkeen askotariko egoeretan erantzun eraginkorrak emateko moduan.

Horrenbestez, prozedura honek helburua du aurreikusten diren fenomeno meteorologiko kaltegarriak buruzko informaziorik onena eta eguneratuena herritar guztiei, erakundeei, enpresei eta komunikabideei helaraztea; sortu ondoren fenomeno horien bilakaerari buruzko unean uneko informazioa izatea eta kalteak gutxitzeko behar diren jarraibideak eta aholkuak ematea ere.

Prozedura honek ezartzen ditu herritarrei kalte egin diezazkieten fenomenoak, meteorologiako aldagaien kantitateak edo intentsitateak, baita kalte horiek zer neurritakoak izan daitezkeen ere. Horretarako, hasierako erreferentziatzko gutxi gorabeherako atalase batzuk zehazten dira a priori gizartearen sektoreen batean edo batzuetan arazo txikiak izateko aukera adierazten dutenak. Maila horiek meteorologia kaltegarriari buruzko abisuak emateko hasiera ezartzen dute.

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspenna: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	3/36

Hainbat meteorologia-egoeraren kaltegarritasuna sailkatze aldera, oro har, hiru atalase espezifiko ezartzen dira egoera edo aldagai bakoitzerako. Horiek, halaber, koloreen arabera bereizitako lau maila sortu dituzte. Lehena kolore **berdez** identifikatzen da eta muturreko egoerarik ez dagoela adierazten du. Beste hiru mailak **horiz**, **laranjaz** eta **gorriz** identifikatzen dira hurrenez hurren, eta abisu-mailakoak dira; lehena (horia soilik erabiltzailearentzako ohartarazpena baino ez da) eta beste biak, berriz, alerta eta alarmakoak hurrenez hurren.

Aldagai meteorologiko bakoitzaren arabera, atalaseak homogeneousagoak edo heterogeneoagoak diren eremuetan daude banatuta, gaur egungo sistema meteorologikoek iraganean baino informazio xehatuagoa sortzea ahalbidetzen baitute.

Meteorologia-fenomeno bat aurreikusten denetik edo aurreikusi gabeko muturreko fenomeno bat ikusten denetik abisua azken hartzailearengana “klasikoa” deitzen dugun eran (parte pdf formatuan ematea, posta elektronikoak...) iritsi arte behar den gutxieneko denbora 60 minututik beherakoa izaten da. Horretarako, meteorologiako zenbait prozesu azkarretan (ekaitzak, enbatak...) jarraitu beharreko prozedurak eta pausoak ez dira era klasiko horretan burutuko, baizik eta denbora errealeko ekintzen bidez, Twitter bezalako aldiuneko komunikazio-bide baten bitartez, @Euskalmet kontua erabiliz.

Bukatzeko, ez dugu ahaztu behar prozedura honen helburua ez dela abisuak, alertak eta alarmak ematea bakarrik ezarritako atalaseak gainditu direlako, baizik eta fenomeno meteorologiko kaltegarriek sor dezaketen “eraginari” loturiko arriskuaren inguruko kontsiderazioagatik. Zalantzarik gabe, horrek zailtasun maila handia gehitzen dio iragarpenari; baina, hala ere, ahalbidetzen du herritarrek informazio zehatzagoa jasotzea muturreko fenomeno meteorologiko horrek egin diezaiekeen kalteari buruz, betiere ezarritako kolore-kodearekiko identifikazioa kontuan hartuz.

2.- PROZEDURAREN EDUKIA

Dokumentu hau osatzen duten elementuak hauek dira: alde batetik, abisua behar duten fenomeno meteorologiko kaltegarriak, beren gutxi gorabeherako mailak, aldagai bakoitzerako zonifikazioak eta kaltegarritasun-atalaseak. Bestetik, hauek ditugu: kanporako informazioarekin (abisu-buletinak) lotutako guztia, Twitter, bidaltzeko erak, buletin horiek eta komunikazioak egin, transmititu eta sortzeko arauak. Aldi berean, azaltzen da zein kasutan osatuko diren fenomenoaren jarraipen-mahaiak, gertaeren bilakaera ikusita, neurriak hartzen jarraitzea ahalbidetuko dutenak.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	4/36

2.1. Kontuan hartu beharreko fenomenoak

Muturreko fenomenotzat joko dira Euskalmetek meteorologia kaltegarriaren gainean duen definizioaren barruan sartzen diren guztiak. Horrenbestez, egoera horietan meteorologia kaltegarriari buruzko komunikatu bat egin eta dokumentu honetan abisuen sorrerari eta komunikazioari buruz ezarritakoaren arabera jardungo da.

Meteorologia kaltegarriko egoera horiek (edo meteorologia funtsezkoa den antropogeneizazioari lotutako arrisku-egoerak) erregistratutako edo aurreikusitako egoeren parametro hauen zenbait atalase gainditzearekin lotuta daude:

- a). Euriteak.
- b). Elurteak.
- c). Haizeak.
- d). Tenperaturak:
 - d1). Izozteak / Muturreko tenperatura baxuak.
 - d2). Bero-boladak.
 - d3). Muturreko tenperatura altuak.
- e). Itsaso-kostako arriskua.
- f). Uholdeak.

Hurrengo puntuan abisuen prozeduraren aktibazioa eragingo duten gutxi gorabeherako atalaseak eta horien sailkapena zehazten dira.

2.2.- Atalase-balioak, abisu-mailak eta zonifikazioa

Europako EMMA proiektuak zehaztutako irizpide berrien bidez ahalik eta informaziorik egokiena eta homogeneizatuena emateko asmoz, oinarritzko lau kaltegarritasun-maila ezarri dira.

Atalase horiek finkatzeko irizpide misto bat jarraitu da: alde batetik, klimatologikoa, itzulera-aldiei lotutakoa eta; bestetik, herritarrentzako arriskugarritasunaren eta eragin- edo asaldura-mailaren kontzeptuari lotutakoa.

Eskema idealizatu batean, kaltegarritasun-mailek muturreko egoerekin dute zerikusia, behin gaindituz gero, eragozpenak edo kalte arinak (abisu horia), maila ertaineko kalteak eta/edo lokalizatuak (**alerta laranja**) eta kalte handiak eta/edo orokorrak (**alarma gorriak**) eragin ditzaketenak.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenera, zaintza eta berorien aurreko jarduerak	2018/06/14	5/36

Mailen izenak eta esanahiak honako hauek dira:

MAILA BERDEA

Ez dago meteorologia-arriskurik.

MAILA HORIA

Orokorrean herritarrentzat ez dago meteorologia-arriskurik, baina bai jardueraren baterako (ohiko meteorologia-fenomenoak, baina arriskutsuak izan daitezkeenak).

Urtean batzuetan gerta daitezke. Horrenbestez, abisu-maila da, ez alerta.

MAILA LARANJA

Meteorologia-arrisku handia dago.

Maila laranjako egoera hauek oso gutxitan gertatzen dira urtean, normalean behin. Kalteak, bereziki sektore batzuetakoak, hasten dira handiak izaten eta pertsonen osotasun fisikoa arriskuan ipintzen da. Alerta-egoera eragiten du.

MAILA GORRIA

Meteorologia-arriskua muturrekoa da (ezohiko meteorologia-fenomenoak, ohiz kanpoko intentsitatea dutenak).

Egoera hauek hainbat urtetan behin gertatzen dira, eta herritarrentzat arrisku nabarmena eragiten dute. Kalte materialak oso handiak izan daitezke edo biztanleriaren zati baten osotasun fisikoa arriskuan jar dezakete. Alarma-egoera eragiten du.

Jarraian, aldagai bakoitzerako gutxi gorabeherako atalase-balioak, abisu horiaren maila hasten dutenak, zehazten dira, baita beste maila batzuetara igarotzeko eragina dutenak. Maila horia zehazten duten atalaseak LAEMZk erabiliko ditu protokolo honen hasiera operatiboa adierazteko.

Baldintza zehatzei jarraiki, LAEMZk prozedura honek aurreikusten ez dituen beste maila batzuekin aktibatu ahalko du maila horia, egoeraren arriskugarritasuna edo egoera horretan sor daitezkeen eraginak kontuan hartuta. Hortaz, protokolo hau meteorologia-fenomenoekin lotutako gertaerak egiaztatu ondoren aktibatu ahalko da, atalaseetara iritsi ez arren.

Maila laranjarako eta gorrirako ondoren jasotako atalaseak orientagarriak dira eta horietara iristean dauden baldintza zehatzei askoz lotuago daude. Dena den, zalantzarik izanez gero, erreferentzia-maila gisa erabili ahalko dira.

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	6/36

Euriteen kaltegarritasun-atalaseak

Erabiltzaile guztien beharrak aseko dituzten euri-atalaseak zehaztea ia ezinezkoa da, gerta daitezkeen egoera ezberdinak direla medio, hala hola: lurraren hezetasun-egoera, ibaien eta urtegien egoera, euriaren eremuak eta hedapena, euri-mota (iraunkortasuna eta intentsitatea), landarediaren egoera eta urteko sasoia. Hori dela eta, gutxi gorabeherako atalase hauek hartzen dira kontuan:

Eremua	Mota	Prezipitazioa 24 orduan (l/m ²)			Prezipitazioa ordubetea (l/m ²)		
	maila	Horia	Laranja	Gorria	Horia	Laranja	Gorria
AUTONOMIA-ERK.		[60 – 80)	[80 – 120)	≥120	[15 – 30)	[30 – 60)	≥60

Lehendabiziko blokea (24 ordu) prezipitazio iraunkorrak eta normalean hedatuak direnei dagokie, eta horien barruan ibai nagusiek uholdeak eragiten dituzte. Kasu jakin batzuetan, eta bereziki, esate baterako, Zadorrako edo Butroeko arroak edo lurzoruan edo urtegietan ur asko pilatzen den garaiak kontuan hartuz, euriagatiko kaltegarritasun-abisuak eman ahalko dira beste balio murriztaileago batzuetatik abiatuta baldin eta egoeraren arriskugarritasunagatik hala komeni bada. Nolanahi ere, behar bezala azalduta geratuko da abisuaren oharretan.

Bigarren blokea (ordubetea) prezipitazio handiei buruzkoa da, eta normalean ez dira oso iraunkorrak izaten. Euri horien aldaera bat dago, oso iraupen laburreko (normalean, 20 minutu baino gutxiago) eta hedapen txikiko zenbait ekaitz. Beren intentsitate handia dela-eta (≥15 l/m² 10 minutuan), putzuak edo uholde txikiak eragin ditzakete hirietan, industrialdeetan eta errepideetan.

Zonifikazioa: abisuetan lurralde-informazioa emango da eskualdeei, lurralde historikoei, arroei, isurialdeei edo eragina lehen-lehenik jasango duten aldeei buruz.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	7/36

Elurteen kaltegarritasun-atalaseak

Gaur egungo gizartearen mugikortasun handia dela-eta, elurrak oztopo ugari eta galera ekonomiko handiak sortarazten ditu errepideei eragiten dienean. Horregatik, meteoro hau zehaztuko duten atalaseak ez daude irizpide klimatologikoei soilik lotuta. Halaber, neguan kaleak eta errepideak garbitzeko lanak erraztera zuzendutako irizpidetzat jotzen dira; hain zuzen, elurrak gizarteari eragiten dion inpaktua gutxitzeko. Horretarako, hiru zonifikazio ezarri dira; lehena 700 metrotik gorakoa eta 1.000 metroko garaieratik beherakoa, bigarrena 300 metrotik gorakoa eta 700 metrotik beherakoa eta hirugarrena 300 metrotik beherakoa. Lehendabiziko zonifikazioak Arabako mendialdeko errepide guztiei eragiten die funtsean. Bigarrenak Araba osoari eragiten dio, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako barnealdeko zati handi bati ere, eta hirugarrenak arazoak orokor egiten ditu, kostaldetik gertuen diren biztanledun-guneetara ere iritsita.

Prezipitazioaren kasuan bezala, elurrarekin iragarpen-zailtasun handiak daude hainbat konturi buruz: puntu bakoitzean egongo den elur-kota, zuritze-maila, elurraren dentsitatea, prezipitazio-kantitatea eta puntu bakoitzean egongo den intentsitatea, elurtegiak sortuko diren...

Horregatik, balio horiek guztiak integratzeko zailtasunak direla eta, 24 ordurako gutxi gorabeherako atalaseen taula hau hartuko da erreferentzia moduan. Kontuan izan behar da metro koadroko litro bat (l/m^2) zanpatu gabeko zentimetro 1eko elur-lodieraren baliokidea dela.

garaierak	Horia	Laranja	Gorria
0-300	Lurreko elur-malutak, $1 l/m^2$ -raino	$[1-5) l/m^2$	$\geq 5 l/m^2$
300-700	Lurreko elur-malutak, $1 l/m^2$ -tik gora	$[5-20) l/m^2$	$\geq 20 l/m^2$
700-1.000	Lurreko elur-malutak, $1 l/m^2$ -tik gora	$[10-30) l/m^2$	$\geq 30 l/m^2$

Garrantzitsua da aintzat hartzea elur-kota ez dela homogenea eta iragarpen-buletinetan hartzen dela lurrean gatzatutako elurra ikusten hasi ahal den tokitzat. Espero den elur-kota oso ezberdina bada EAEko kokapen geografikoaren arabera, komunikatuan jakinaraziko da.

Komunikatuari beste txosten bat erantsiko zaio, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari, foru-aldundietako errepideen zuzendaritzari eta herri eta hirietako bide-garbitzetaz arduratzen diren zerbitzuei zuzendutako informazio osagarria duena. Txosten horiek 1.000 metrotatik behera elurra espero den guztietan bidaliko dira.

Zonifikazioa: abisuetan lurralde-informazioa emango da eskualdeei, lurralde historikoei, arroe, isurialdeei edo eragina lehen-lehenik jasango duten aldeei buruz.

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	8/36

Haizeteen kaltegarritasun-atalaseak

Haizeari dagokionez, honelako kalteak eragiten dituen hartu da kontuan: zuhaitzak, erlaitzak edo hormak erortzea; objektuak erortzea eta, ondorioz, horiekiko kolpeak; garraio-sareetan aldaketak; nekazaritzan, eraikuntzan eta industrian kalteak edo, horrez gain, heriotzak.

Kalte horietako gehienak iraupen motzekoak eta ia berehalakoak diren haize-ufadek sortzen dituztela kontuan izanik, erabaki da balio-atalaseak soilik **haize-boladarik handienari** lotuta egotea, eta ez batez besteko haizeari.

Ezinezkoa da zehaztea toki eta une bakoitzean izango diren haize-boladak, zeren Euskadi bezalako lur konplexuetan haizea ausazkotasunez ibiltzen baita. Horregatik, dena errazte aldera, bi zonifikazio bereizi dira. Horietako batek bere baitan haizearen eraginpeko aldeak hartzen ditu: labarrak, itsas muturrak, mendialdeko inguruak eta abar. Besteak, ordea, bere baitan haizearen eraginpean ez dauden aldeak hartzen ditu; hau da, hiriak eta autonomia-erkidegoko gainerako eremuak. Dena den, erabiltzaileak oro har badaki zenbait egoera sinoptikok oso haize-bolada bortitzak eragiten dituztela hainbat tokitan; normalean, kanalizazioengatik edo beheranzko haizeengatik. Horren adibidea dugu Urduñan eta Ezkerraldean dauden haize oso gogorren egoerak, SW-ko haizeak dabiltzanean; edo Elorrioren SSE-koak; edo Guardian, N-koak. Erabiltzaileak aintzat hartu beharko du egoera eta toki horiek, puntu zehatz hori eraginpeko aldetzat jotzen ez den arren, kontuz ibili beharko duela eraginpeko aldeak balira bezala. Abisuak emateko hartuko diren gutxi gorabeherako balioak ondoko hauek dira:

Eremua	Mota	Gehieneko haizekada (km/h)		
	maila	Horia	Laranja	Gorria
Eraginpeko aldea		[100 – 120)	[120 – 140)	≥ 140
Eraginpean dagoen aldea	ez	[80 – 100)	[100 – 120)	≥ 120




LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	9/36

Tenperaturen kaltegarritasun-atalaseak

Tenperaturei loturiko arazoei dagokienez, gizarteari kalteak eragin ahal dizkieten hiru egoera daude: “izozteak / muturreko tenperatura baxuak”, “muturreko tenperatura altuak” eta “tenperatura altu iraunkorrak”.

“Tenperaturen kaltegarritasun-atalase guztietarako” lau “alde homogeneo” zehaztu dira: kostaldea (itsasotik oso hurbil), Kantauri zonaldeko barnealdea (gainerako Kantauri isurialdea, Bilboko udalerria ere barne), iragate-zona (Arabako Lautada eta inguruak) eta Ebro ondoko eskualdea (Arabako Errioxa, Zanzurra eta inguruak). Ikusi hurrengo mapa.



Zona 1	Kostaldea / Zona costera
Zona 2	Kantauri zonaldeko barnealdea / Zona cantábrica interior
Zona 3	Iragate-zona / Zona de transición
Zona 4	Ebro ondoko eskualdea / Zona del eje del Ebro

- **Izozteak / muturreko tenperatura baxuak:** termometroa balio negatiboetara iristen denean, gure gizartearen arazorik gehien sortzen duen fenomenoetako bat zirkulazio-istripuak izaten dira. Horregatik, tenperatura negatiboak espero diren guztietan, abisu horia aktibatuko da gutxienez zona horretarako. Izozteak ohikoagoak izaten dira haize gutxiko egunetan, zerua oskarbi dagoenean eta bailaren hondoan. Egun haizetsuetan, berriz, hotz handiagoa egiten du, eta izozteak garaiera handiagoetan izaten dira larriagoak.

Errepideetan izotz-zantzua edo orokorrean izotza egongo delako iragarpena izanez gero (izozte-aldi handi baten ondoren fronte bat sartu delako edo lurra bustita dagoenean tenperaturak asko jaitsi direlako edo euri izozkorragatik), abisuan behar bezala jasoko da.

Hotz-boladak, hau da, hotzak hainbat egunetan irauten duen egoerak baitira, eragin guztietarako izozte / muturreko tenperatura baxutzat hartuko dira, eta komunikatuan egoerak iraun egingo duela adieraziko da. Kasu horretan, arreta handiagoa jarriko da sentazio termikoan eta egoeraren iraupenean iragarritako gutxieneko tenperaturetan baino.

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	10/36

Eremu bakoitzean egoerak mugatzen dituzten atalase-balioak hauek dira:

Eremua	TENPERATURAK GRADU ZENTIGRADUTAN		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
Kostaldea	≤ 0	≤ -2	≤ -4
Kantauri zonaldeko barnealdea	≤ 0	≤ -4	≤ -7
Iragate-zona	≤ 0	≤ -6	≤ -10
Ebro ondoko eskualdea	≤ 0	≤ -5	≤ -8

- **Muturreko tenperatura altuak:** muturreko tenperatura altuen eraginaren oinarria da pertsonen bero-kolpeak jasateko arrisku handia; hain zuzen, gorputzetik beroa ateratzeko ezintasunagatik. Eragin hori handi daiteke hezetasun erlatibo altuak daudenean, beroriek gorputzeko izerdiaren lurrunketa eragozten dutelako eta/edo haizerik ez dabilelako. Horregatik, zehaztu diren atalaseak hauek dira:

Eremua	TENPERATURAK GRADU ZENTIGRADUTAN		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
Kostaldea	≥ 33	≥ 35	≥ 37
Kantauri zonaldeko barnealdea	≥ 36	≥ 38	≥ 40
Iragate-zona	≥ 35	≥ 37	≥ 39
Ebro ondoko eskualdea	≥ 36	≥ 38	≥ 40



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	11/36

- **Tenperatura altu iraunkorrak:** “*tenperatura altu iraunkorreko egoera*” dugu iragarritako tenperaturek –aurreikusitakoak zein eguneko tenperatura maximoak– tenperatura-eraginetarako zehaztuta dauden zona klimatiko baterako edo guztietarako, definitutako atalaseak gainditzen dituztenean, hau da:
 - **Kostalderako** eguneko tenperatura maximo eta minimoek, hurrenez hurren, 30 °C-ak eta 19 °C-ak gainditzen dituztenean.
 - **Kantauri zonaldeko barnealderako** eguneko tenperatura maximo eta minimoek, hurrenez hurren, 35 °C-ak eta 17 °C-ak gainditzen dituztenean.
 - **Iragate-zonarako** eguneko tenperatura maximo eta minimoek, hurrenez hurren, 35 °C-ak eta 17°C °C-ak gainditzen dituztenean.
 - **Ebro ondoko eskualderako** eguneko tenperatura maximo eta minimoek, hurrenez hurren, 36 °C-ak eta 18°C °C-ak gainditzen dituztenean.

Tenperatura altu iraunkorrek biztanleengan dituzten eraginak ez dira muturreko tenperatura altuenak bezalakoak. Izan ere, beroak irautearen arazoa batik bat dugu eraikinen beroketa eta horrek berekin dakar pertsonen lo egin ezin izatea eta gorputzek behar bezala atsedean hartu ezin izatea. Horregatik, tenperatura kaltegarrien aldaera honen arriskua egoeraren iraupena da bereziki, horregatik hartzen dira gutxi gorabeherako atalase hauek:

Eremua	EZARRITAKO ATALASEAK GAINDITZEN DITUZTEN ONDOZ ONDOKO EGUNEN KOPURUA		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
Kostaldea (t^a min $\geq$ 19 eta t^a max $\geq$ 30)	1 edo 2 egun	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago
Kantauri zonaldeko barnealdea (t^a min $\geq$ 17 eta t^a max $\geq$ 35)	1 edo 2 egun	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago
Iragate-zona (t^a min $\geq$ 17 eta t^a max $\geq$ 35)	1 edo 2 egun	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago
Ebro ondoko eskualdea (t^a min $\geq$ 18 eta t^a max $\geq$ 36)	1 edo 2 egun	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	12/36

Itsaso-kostako arriskuaren kaltegarritasun-atalaseak

Kostaldetik gertu dauden uretan muturreko egoeratzat hartzen dira haizearen intentsitatean eta norabidean bat-bateko aldaketak eta/edo kalte garrantzitsuak –hain zuzen, portuko instalazioetan, ontzien hondoratzeak, arazoak itsasoko jolas-jardueretan, heriotzak portuetan eta hondartzetan,...– eragin ditzaketen olatuak sortzen dituztenak.

Kaltegarritasun-mota honetarako hiru aukera ezarri ditugu: bata nabigazioari begira, beste bat enbatei begira eta azken aukerak xedea du kostaldeko eragina iragartzea.

Nabigazioa: bloke hau nabigazioari eta lehenengo 2 milietan burutzen diren kirol- eta jolas-jardueri zuzenduta dago. Kaltegarritasun-mota hau ezarriko dugu olatuen altuera esanguratsurako eta/edo itsasoaren egoerarako atalaseak finkatuz. Nolanahi ere, haize-itsasoa eta hondoko itsasoa bereiziko dira, itsaso nahasia noiz dagoen aurreikusirik adierazita. Arreta berezia izango dugu itsaso kaotikoa sortzen den egoerekin. Jarraian, egoera-mota honetarako gutxi gorabeherako atalaseak (*); zeren, balio horiez gain, arriskugarritasuna handitu edo txikiagotu egiten duten beste aldagai batzuk kontuan hartzen baitira, hala nola urteko sasoiak, ordutegia, gertaeraren bat-batekotasuna,...

Horia	Laranja	Gorria
Itsaso zakarra edo kostaldean olatuaren altuera esanguratsua 3,4 eta 5 metro artekoa.	Itsaso oso zakarra edo kostaldean olatuaren altuera esanguratsua 5 eta 7 metro artekoa.	Itsaso handia edo kostaldean olatuaren altuera esanguratsua 7 metrotik gorakoa

(*) Bainurako garai ofizialean (ekainaren 15etik irailaren 30era) olatuaren altuera esanguratsuen atalaseak metro eta erdi gutxituko dira (**2 metro horirako, 3,5 metro laranja** eta **5,5 metro gorrirako**).

Enbatak edo anterakoak: enbatak dira kostaldeko nabigatzaileei eta hondartzetako erabiltzaileei arazo larriak eragin diezazkieketen haizearen abiadura- eta norabide-aldaketa bortitzak. Normalean, halako fenomenoak udaberrian eta udan izaten dira arriskutsuagoak. Halakorik gertatzeko aukera aurreikusten den guztietan, abisua emango da. Zenbait ekaitzek, haizeen eta fronteen sarrera bortitzek enbaten tankerako ondorioak izan ditzakete hondartzetako erabiltzaileentzat eta nabigatzaileentzat; horrenbestez, kontzeptu honen barruan sartuko dira.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ondoko gutxi gorabeherako atalase hauei jarraiki emango ditu abisuak:

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	13/36

MAILA	EZAUGARRIAK
HORIA	Itsasoan: haizea zakar aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 6ko indarrarekin. Lehorrean: haizea zakar aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada zakarrekin areagotuta, kostaldean 60 km/h-tik gorakoak izanda.
LARANJA	Itsasoan: haizea zakar aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 7ko indarrarekin. Lehorrean: haizea zakar aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada oso zakarrekin areagotuta, kostaldean 90 km/h-tik gorakoak izanda.
GORRIA	Itsasoan: haizea zakar aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 8ko indarrarekin. Lehorrean: haizea zakar aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada bortitzekin areagotuta, kostaldean 120 km/h-tik gorakoak izanda.

Eragina kostaldean: gure gizarteak azpiegitura ugari du kostaldeko lehen lerroan; hau da, portuak, itsasertzeko pasealekua, azpiegiturak hondartzetan, kostaldeko errepideak, baita kaleak eta herriak ere. Azpiegitura horiek denboraleen oldarrak jasan ohi dituzte, baina hartzen dituzten kolpeak ez daude soilik itsasoaren egoeraren menpe, aldagai askoren menpe baizik; esate baterako, marea bizien edo motelen aldian gauden edo, denboralea itsasgorekin batera gertatzen den ala ez, olatu-mota, olatuen indarra, olatuen norabidea, kostalde-mota... Horregatik, bilatu ditugu aipatutako aldagai horiek denboraleek historikoki egin dituzten kalteekin korrelazioan ondo jartzen dituzten atalaseak. Indize hauek gainditze-kontzeptuan daude oinarrituta. Gainditze-kontzeptua dugu, aldagai askoren arabera, olatuek gure kostalean altuera jakin batzuk gainditzeko duten gaitasuna. Hori dela eta, itsasgora bakoitzean bi gainditze-indize (itsasoaren mailaren gaineko elementu bati erasotzean olatuek hartzen duten kota) emango dira, bitartea balitz bezala; hain zuzen, bata esanahia altuerarik gertagarrienari lotua duena eta bestea une horretan egon litekeen gehieneko gainditze-altuerari zuzenduta dagoena. Ondorengo abisu bakoitzean, "ikusitako fenomenoak" atalean gainditze-indizeen

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	14/36

balioak, datu errealen arabera eskuratutakoak baitira, jarriko dira; era horretan, kostaldeko erabiltzaile bakoitzak (administrazioa, jabeak, portuak,...) jakin dezan indize horiek zein erlazio duten kostaldeko bere intereseko eremuekin.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ondoko gutxi gorabeherako atalase hauei jarraiki emango ditu abisuak:

Avisu horia	Alerta laranja	Alarma gorria
Gainezka egiteko indizea: $I > 5,75m$ Gainezka egiteko indize maximoa: $I_{(m\acute{a}x)} > 6,50m$	Gainezka egiteko indizea: $I > 6,50m$ Gainezka egiteko indize maximoa: $I_{(m\acute{a}x)} > 7,00m$	Gainezka egiteko indizea: $I > 7,25m$ Gainezka egiteko indize maximoa: $I_{(m\acute{a}x)} > 8,00m$



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	15/36

Uholdeen kaltegarritasun-atalaseak

Uholdeak sor ditzaketen eraginei begira; hau da, ibaien mailak 1. eranskinen zehaztutako mailetara iristen direnean edo beroriek gaitzen dituztenean, prozedura hau aktibatuko da. Egokitzen jotzen den bakoitzean 1. eranskina eguneratuko da abisu- eta alerta-mailekin eta, behar izanez gero, alarma-mailekin ur-emaria neurtzeko estazioetan; hain zuzen, Uraren Euskal Agentziak erakunde eskudunekin eta LAEMZrekin batera egindako azterlanei jarraiki. Aktibazioa arto-mailan egingo da.

EREMUAK	MAILA	EZAUGARRIAK
Arroen mailan	HORIA	ABISU maila, 1. eranskinen erreferentzia-mailetara iristean edo iritsiko direla aurreikustean. Ez dago kalterik. Maila hauek zaintza intentsiboko prozesua hasten dute.
	LARANJA	ALERTA maila, 1. eranskinen erreferentzia-mailetara iristean edo iritsiko direla aurreikustean. Gainezkatze eta kalte txikien hasiera.
	GORRIA	ALARMA maila, 1. eranskinen erreferentzia-mailetara iristean edo iritsiko direla aurreikustean. Gainezkatze eta kalte orokorrak.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspenna: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenna, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	16/36

3.- JARDUTEKO PROZEDURA

Prozedura honek erregulatzen ditu meteorologia-fenomeno kaltegarriei loturik Euskal Administrazioak burutzen dituen jarduerak. Prozedura honetan araututakoaren arabera, jarduera horiek zuzenduta daude egon daitekeen kaltegarritasun-maila zehaztera eta inplikaziorik handiena duten gizarte- eta erakunde-sektoreei jakinaraztera edo, hala egokituz gero, herritar guztiei, beharrezko autobabes-neurriak har ditzaten.

3.1.- Prozedura aktibatzea

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak aktibatuko du prozedura ondoko baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

- Fenomeno batek protokolo honetako maila horirako ezarritako atalaserira iritsiko dela aurreikusten denean.
- Berehalakoan hasitako egoeretan, hasiera batean kaltegarritasun-atalaseren batera iristea aurreikusi ez arren, iritsi dela edo denbora-tarte labur batean irits litekeela jakiten denean. Kasu honetan, fenomenoak arin iragatekoa bada (1-2 orduko beharrezko iraupena), prozedura laburrago bat burutuko da, batez ere Twitterren oinarritua.
- Berehalakoan hasitako egoeretan, hasiera batean kaltegarritasun-atalaseren batera iristea aurreikusi ez arren, iritsi dela edo denbora-tarte labur batean irits litekeela jakiten denean. Kasu honetan, fenomenoak arin iragatekoa (1-2 orduko gorako iraupena) ez bada, ohiko prozedura beteko da.
- Maila horirako zehaztutako atalaseetara ez dela iritsiko aurreikusi arren, inguruabar zehatzek –jakina, ohiz kanpokoak, fisikoak zein sozialak– gorabeherak egon daitezkeela erakusten dutenean.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Euskalmetek arau zehatz batzuei jarraiki sortutako komunikatua erabiliko du prozedura aktibatzeko. Halaber, arau horiek erabiliko dira hurrengo egoera hauekin lotutako komunikatuak idazteko:

- Gertakariaren amaiera aurreikustea edo ikustea.
- Informazioa eguneratzea, 12 orduko.
- Aurreko komunikatua aldatzea eskatzen duten aldaketa nabarmenak aurreikusten badira.

Euskalmeten ustez, lehen komunikatua maila larriago edo gorriko abisua eman behar bada, Euskalmet Esku Hartzeko Zerbitzuaren arduradunarekin edo, halakorik egon ezean, guardiako teknikariarekin harremanetan jarriko da, SOS-Deiak Larrialdia Koordinatzeko Zentroaren bidez, komunikatua argitaratu aurretik. Horietako mailaren bat aktibatuz gero, Esku Hartzeko Zerbitzuaren

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenera, zaintza eta berorien aurreko jardura	2018/06/14	17/36

arduradunak edo, halakorik egon ezean, guardiako teknikariak aktibatuko du prozedura honetako 3.2 puntuan jasotako jarraipen-fasea.

3.1.1. Komunikatuak sortzeko arau bereziak

Komunikatu horien informazioa hizkuntza argian adieraziko da, Euskalmeten estilo-liburuko arauak eta glosarioko terminoak errespetatuz, eta ezarritako atalaseak gainditu direla aipatu eta abisuaren kolorea zehaztuko da (hori guztia 2.2 puntuan dago jasota).

Arau orokor gisa, muturreko fenomeno iragartzeko abisua ohiko iragarpenak sortzean edo eguneratzean argitaratuko da (12 ordu). Ahal bada, eguerdia baino lehen (tokiko 10:00ak edo 11:00ak inguruan) eta arratsaldean (tokiko 19:00ak edo 20:00ak inguruan) emango da, eta normalean ez da eguneratuko hurrengo bloke arte. Egokitzen jotzen bada, eta justifikatutako arrazoiengatik, beste ordu edo tarte batzuetan ere atera ahalko dira. Dena den, (abisu horien egoeretan) web-orrian, Twitterren, app-an eta abarren informazioa eguneratuko da, baina arratsaldeko abisu berria posta elektronikoz ez da bidaliko iragarpenean aldaketa esanguratsurik ez badago.

Komunikatua 48 ordu baino gehiagotarako emango da soilik tenperatura altu iraunkorren kasuan, ezohiko egoeretan edo justifikatutako arrazoiengatik.

Komunikatuaren barruan hiru bloke egongo dira: KAUSA(K), MUTURREKO FENOMENOEN IRAGARPENA ETA IKUSITAKO FENOMENOAK.

Kausen blokean, kontuan hartu beharreko fenomeno edo fenomenoak zehaztuko dira. Prozedura honetan, 2.1. puntuan definitutako meteorologia-fenomeno kaltegarrien kategoriekin eta horiei dagokien/dagozkien atalasearekin/atalaseekin bat etorriko dira.

“Muturreko fenomeno iragarpeneraren” blokean prozedura aurreikusitako mailari dagokion kolorearen arabera aktibatuko duen aldagai bakoitza sailkatuko da eta, “ahal denean”, aldagai bakoitza zer eremutan eta zenbat denboraz aktibatuko den adieraziko da. Kontuan izan behar da komunikatu batek hainbat fenomenori buruzko informazioa jaso dezakeela, abisu-maila ezberdinekin. Gainera gerta daiteke aldagai berean, eremu edo ordutegi desberdinetan, abisu-maila ezberdina izatea. Adibidez, litekeena da haize oso gogorren abisua 13:00etatik 17:00etara maila horiarekin aktibatzea eta 17:00etatik 20:00etara maila laranjarekin, eta, ondoren, egoera normalizatzea espero izatea. Buletinetan fenomeno zer ordutan hastea eta bukatzea espero den adieraziko da, betiere horretarako ziurtasunik badago. Buletinean aldagai bakoitza gertatzeko probabilitate-maila ere azalduko da.

“Ikusitako muturreko fenomeno” blokean ikusitako muturreko fenomenoari buruzko informazioa gehituko da, “bereziki” berehala hasitako muturreko fenomeno bat agertuko dela jakiten denean (fenomenoa abisua eman aurretik hasi bada, buletineko testua esaldi honekin hasiko da: «... hautematen ari dira, ikusten ari dira, gertatzen ari dira...») eta, zuhurtziaren arabera, aurreikusi den arren, bere garrantzia dela eta, azaltzea komenigarritzat jotzen denean.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	18/36

Dena den, arin iragatekoak diren egoeretan, batik bat ekaitz eta prezipitazio handien kasuan, asko irautea espero EZ denean, muturreko meteoari buruzko abisuak ez dira emango edo aldatuko, zeren prestatu eta bidaltzeko denbora ordubetetik gorakoa izan baitaiteke. Kasu horietan Twitter sistema erabiliz, @Euskalmet kontuaren bidez, aldaketen berri jakinaraziko da. Nolanahi ere, abisu-sistema (abisuak egonez gero) sinplifikatuko da biztanleengana lehenbailehen hel daitezen.

Buletin guztiak modu korrelatiboan zenbakituko dira, eta zenbakikuntza urte hasieran abiaraziko da. Zenbakia goiburuan honela adieraziko da: XX/a.aaa, non XX buletinaren zenbakia den, eta a.aaa, urtea.

Komunikatuen egitura hau izango da:

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILA

METEOROLOGIA FENOMENO KALTEGARRIEN ABISUA XX/a.aaa

.....aren(e)an,(e)(t)an (tokiko ordua), sortua.

(Informazio hau(e)ko(e)(t)an eguneratuko da, lehenago egin behar ez bada)

KAUSA(K): (....)

MUTURREKO FENOMENOEN IRAGARPENA:

(Testua)

IKUSITAKO FENOMENOAK:

(Testua)

=====

Iragarpenaren buletin ofizialaren testu osoa (D, D+1, D+2, D+3).



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspenna: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenna, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	19/36

Komunikatuak mezu elektronikoaren barruan bidaliko dira pdf formatuko bi fitxategitan: gaztelaniaz bata eta euskaraz bestea.

3.2.- Jarraipen-fasea

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak sortutako komunikatuak erabiltzaile guztiei berehala helaraziko zaizkie SOS-Deiak Koordinazio Zentroen bitartez. SOS-Deiaket informazio hori une horretan Esku Hartzeko Zerbitzuan guardian dagoen teknikariari bidaliko dio. Teknikari horrek Esku Hartzeko Zerbitzuko arduradunari beharrezko kontsultak egin ondoren, gertaeraren hasierako jarraipen-fasearen koordinatzaile bihurtuko da. Jarraipen-fase honetan hau zehaztuko da:

- Maila horiari eutsi behar zaion edo maila laranja edo gorria ezarri behar den.
- Jarraipen-batzordea biltzeko deia egitearen egokitasuna baloratzea.
- Komunikatua erakunde eskudunei eta/edo eraginpean egon daitezkeen erakundeei, meteorologia-fenomenoaren eraginpeko sektore sozialei eta, aurreikusitako fenomenoak agertuz gero, beharrezkoak izan daitezkeen larrialdi-zerbitzuei helaraztea.
- Komunikabideei eta, hedaduraz, gizarte osoari helaraztea edo ez.
- Hala erabakiz gero, erakundeei eta, oro har, herritarrei autobabeserako jakinarazi beharreko aholkuak eta jarraibideak zehaztea.

Erabaki horiek hartzeko, Esku Hartzeko Zerbitzuak Segurtasun Sailburuordetzako zerbitzu tekniko guztien eta Administrazioako gainerako zerbitzuen laguntza izango du.

Euskalmetek eta Esku Hartze Zerbitzuak egindako ebaluazioa eta proposamenak –beren arduradunen edo, horien ezean, guardiako teknikariaren bidez–, lehenik, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zerbitzuaren zuzendariari jakinaraziko zaizkio edo, hura ez badago, Segurtasuneko Sailburuordetzari. Horiek behar diren erabakiak hartuko dituzte informazioa modurik onenean eta zuzenean zabaltzeko. Zehazki, erakundeei, komunikabideei eta, oro har, biztanleei maila laranja edo gorria jakinarazteko eta behar den informazioa helarazteko erabakiak eskatzen du lehenago maila horiek ezagutzea, berehala hasitako kasuetan izan ezik, ahalik eta denborarik laburrenean informatuko baita.

3.3.- Aurreikusitako muturreko fenomenoaren maila zehaztea

Adierazi dugun bezala, abisu horia maila horretarako ezarritako atalaseak iragartzen edo ikusten direnean ematen da eskuarki. Gainerako kasuetan (alerta laranja eta alarma gorria), zehaztutako atalaseak orientagarriagoak dira eta ez hain erabakigarriak. Aintzat hartu behar da meteorologia-fenomeno kaltegarri batek sortaraz dezakeen arriskugarritasunaz hitz egiten ari garela. Horrek esan nahi du kontuan hartu beharreko aldagaiak ez daudela meteorologiarekin soilik lotuta. Kasu askotan,

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	20/36

gizarteko, urtaroko edo ingurumeneko beste faktore batzuek meteorologiakoek baino garrantzi handiagoa izan dezakete. Edonola ere, prozedura honetan zehaztutako atalaseak azken urteetan meteorologiako fenomenoaren gainean lortutako esperientziarekin zehaztu dira; beraz, erreferentzia egokia dira mailak ezartzeko. II. eranskinean jasotzen dira kolorearen maila zehazteko kontuan hartu beharreko zenbait irizpide eta aldagai.

3.4.- Jarraipen-batzordeak

Egoera zehatzen arabera zehazten diren kasuetan, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak aurreikusitako edo ikusitako meteorologia-fenomenoaren jarraipen-batzordeak deituko ditu.

Jarraipen-batzordearen helburua da Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari edo plan baten zuzendaritzari, aktibatuz gero, gauzatu beharreko jardueri eta neurriei buruzko aholkularitza ematea. Batzordean parte hartzen duten erakundeek beren ardurapeko neurri guztiak hartu beharko dituzte dagokien eskumen-esparruan.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jarraipen-batzorde horretako koordinatzailea izendatuko du. Printzipioz, ardura hori izango duena Esku Hartzeko Zerbitzuko arduraduna izango da eta, horren ezean, jarraipenaren hasierako fasea koordinatu duen guardiako teknikaria. Gertaera horietako asko zer baldintzatan eta egoeratan izaten diren kontuan hartuta, baliteke batzuetan batzorde horien saioak aurrez aurrekoak edo bideokonferentzia bidezkoak ezin izatea; ondorioz, erabat justifikatuta egongo da telefonoz egitea.

Jarraipen-batzordearen lanetako bat, betiere egoera zehatzen arabera, izango da gertaera kudeatzeko beharrezkoak izan daitezkeen planak eta programak organo eskudunak aktibatzeko proposamena egitea (Babes Zibileko planak, Neguko Bidezaintza Plana, tenperatura altu iraunkorren egoeretan jarduteko prozedura, presen protokoloak, etab.) (III. Eranskina). Babes Zibileko planik aktibatuz gero, jarraipen-batzorde hori plan horren operatibitatean sartuko da.

3.4.1. Jarraipen-batzordeen osaera

Jarraipen-batzordearen osaera muturreko fenomenoaren arabera izango da, aurreikusitako fenomenoarekin administrazioan loturik dauden sektoreak kontuan hartuz. Dokumentu honetan gutxieneko osaera jasotzen da; baina, kasu zehatzetan eta egoera bereziei begira, eta batzordearen koordinatzailearen arabera, handi daiteke gertaeraren kudeaketarekin lotutako beste erakunde batzuekin. Batzorde guztietan Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako komunikazio-arloko aholkulariak parte hartuko du.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	21/36

Meteorologiako fenomenoak:

Euriteak eta uholdeak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia (URA)
- Foru-aldundietako hidrologiaren alorreko zuzendaritza eskudunak

Elurteak, izozteak eta muturreko tenperatura baxuak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Trafiko Zuzendaritza
- Foru-aldundietako errepideetako zuzendaritzak

Tenperatura altu iraunkorrak eta muturreko tenperatura altuak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Osasun Publikoko Zuzendaritza
- Osakidetza

Haizeteak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Itsaso-kostako arriskua

- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.
- Gobernuaren Ordezkaritza (SASEMAR)
- Arrantza Zuzendaritza
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia (URA)



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	22/36

3.5.- Jarduerak abisu-maila desberdinen aurrean

Aurretik azaldu den bezala, meteorologia-fenomeno kaltegarri baten iragarpenarekin batera izaten diren inguruabarrek hari esleituko diogun arriskugarritasuna aldaraz dezakete. Era berean, inguruabar horiek meteorologiako zerbitzuen eta larrialdi-zerbitzuen jarduteko jarraibideak aldaraz ditzakete. Epigrafe honetan jasotako informazioak jarduteko jarraibide orokorrak ezarri nahi ditu, gertaeraren unean azaltzen diren inguruabar zehatzetara egokitu beharko direnak.

3.5.1. Maila horia

- SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren komunikatua bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarte-sektoreei eta zerbitzuei.
- Euskalmeten web-orriaren eta Twitterren bidez ([@Euskalmet](#) eta [@112_SOSDeiak](#)) emango da abisua (*).
- Komunikabideen bitartez herritar guztiei zuzentzeko aukera baloratuko da.
- Jarduteko jarraibideak eta autobabeserako arauak ematearen aukera baloratuko da.
- Plan edo programa berezien (uholdeak, presak, neguko bidezaintza, etab.) aktibazioa proposatzeko aukera aztertuko da (III. Eranskina).
- Ezusteko bilakaera txar batek izan ditzakeen eraginak aztertuko dira.
- Maila altuago bat ezartzeko aukera baloratuko da.
- Egoeraren garrantzia baloratuko da meteorologia kaltegarriaren fenomenoaren amaitutzat jotzeko.

3.5.2. Maila laranja

- SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren komunikatua bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarte-sektoreei eta zerbitzuei.
- Euskalmeten web-orriaren eta Twitterren bidez ([@Euskalmet](#) eta [@112_SOSDeiak](#)) emango da abisua (*).
- Herritarrei jarduteko jarraibideak eta autobabeserako aholkuak emango zaizkie.
- Herritar guztiei egoeraren berri emango zaie komunikabideen bidez (prentsa-oharra).
- Saileko prentsa-zerbitzuekin batera komunikabideetan zuzenean agertzeko aukera baloratuko da.
- Gorabeherak izan ditzakeen eraginak aztertuko dira.




LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	23/36

- Gorabeherak txarrera eginez gero, beharrezkoak izan daitezkeen protokoloak, komunikazio-sistemak eta informazio-iturriak berrikusiko dira.
- Fenomenoaren eragina zuzenean jasotzen duten gizarteko sektoreek eta erakundeek alerta jaso dutela egiaztatuko da.
- Egoeraren bilakaeraren arabera, beharrezkoak izan daitezkeen larrialdi-zerbitzuek alerta jaso dutela egiaztatuko da.
- Lotutako beste protokolo batzuk aktibatu diren egiaztatuko da (neguko bidezaintza-plana, tenperatura altu iraunkorren eta muturreko tenperatura altuen egoeretan jarduteko prozedura...)
- Programa eta protokolo berezien (presak, neguko bidezaintza, tenperatura altu iraunkorrak, etab.) aktibazioa proposatzearen egokitasuna baloratuko da (III. Eranskina).
- Udal- zein autonomia-mailako babes zibileko larrialdi-planak aktibatzeak aukera baloratuko da.
- Maila altuago bat (gorria) ezartzeko aukera baloratuko da.
- Egoeraren garrantzia baloratuko da meteorologia kaltegarriaren fenomenoak amaitutzat jotzeko edo arrisku-maila horira jaisteko.

3.5.3. Maila gorria

- SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren komunikatua bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarte-sektoreei eta zerbitzuei.
- Euskalmeten web-orriaren eta Twitterren bidez ([@Euskalmet](#) eta @112_SOSDeiak) emango da abisua (*).
- SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, abisatzeko SMS bat bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarte-sektoreei eta zerbitzuei.
- Herritarrei jarduteko jarraibideak eta autobabeserako aholkuak emango zaizkie.
- Herritar guztiei egoeraren berri emango zaie komunikabideen bidez (prentsa-oharra).
- Saileko prentsa-zerbitzuekin batera komunikabideetan zuzenean agertzeko aukera baloratuko da.
- Egoerak izan ditzakeen eraginak aztertuko dira.
- Gorabeherak txarrera eginez gero, beharrezkoak izan daitezkeen protokoloak, komunikazio-sistemak eta informazio-iturriak berrikusiko dira.



- (*) oharra: baliteke, zenbait gertaeraren dinamikaren edo hedapenaren arabera –adibidez, uholdeen kasuan–, segimendua Twitter bitartez soilik egin ahal izatea eta; gainera, segimendu hori oso zehatza ez izatea. Dena den, bide hori erabiliz ahaleginduko da inguruabarrek ahalbidetzen duten informaziorik gehiena ematea.

Muturreko fenomenoei buruzko komunikatuak posta elektronikoz bidaliko dira, batez ere. Ezingo balitz bide hori erabili, beste batzuk erabiliko lirateke (faksa, telefonoa...). Hala ere, abisu guztiak Eusko Jaurlaritzaren webgunean ikusi ahalko dira www.euskalmet.euskadi.net helbidean.

Bere hurbiltasuna dela eta (60-90 minutu baino gutxiago) edo etengabe aldatzen delako, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ezin badu ohiko prozeduraz egin (dokumentu honetan deskribatutakoa), telefonoz eta/edo irrati bidez berehala jakinaraziko zaio/zaie SOS-DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari/Zentroei. Egoera horietan informazioa emateko bide ofiziala Twitter kontuak izango dira (@Euskalmet eta @112 SOSDeiak).

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, posta elektronikoaren sistemaren bidez, muturreko egoera bakoitzerako ezarritako komunikatua banatuko die IV. eranskinean agertzen diren erabiltzaileei.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza ez diren beste erakunde batzuetatik meteorologia kaltegarriko abisua zabaltzeko eta informazio hori zabaltzean ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, buletinaren hartzaileek hauek kontuan izanik zabaltzeko ahalik dituzte:

- Meteorologiako informazioa egiteko ardura duen iturria Eusko Jaurlaritzako Segurtasun dela aipatu beharko da.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	25/36

- Jasotako testua osorik transkribatuko da.
- Informazioa eguneratuko da.

4.- PROZEDURAREN BERRIKUSPENA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, SOS DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bitartez, gorabehera-jarduketa bat irekiko du maila laranjako edo gorriko egoera larri berri bat abiarazten den bakoitzean edo, nahiz eta maila horikoa izan den, gorabehera nabarmenak eragin baditu.

Prozedura hau urtero berrikusiko da eta jakinaren gainean jartzeko Euskadiko Babes Zibileko Batzordeari helaraziko zaio.

Bestalde, muturreko zenbait fenomeno agertzeko garairik egokienak hasi aurretik, Meteorologiako Fenomeno Kaltegarrien Iragarpena eta Zaintzarako Prozeduraren osagai batzuen berrikuspen partziala egin ahalko da; hain zuzen, fenomeno horiekin zuzen-zuzenean loturik dauden osagaiena.

Prozedura hau onartu ondoren Eusko Jaurlaritzaren web-orrian argitaratuko da.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	Data	Orr.
	2018/06/14	26/36

I. ERANSKINA – UHOLDE MAILAK UR-EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOETARAKO ETA UAEE-ETARAKO

PRESTATZE PROZESUAN DAGO URAREN EUSKAL AGENTZIAREN (URA) ALDETIK, LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZAREKIN ETA INPLIKATUTAKO BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN BATERA, UHOLDE ARRISKUEN EBALUAZIOARI ETA KUDEAKETARI BURUZKO 2007/60/EE ZUZENTARAUARI (ESTATUKO ORDENAMENDU JURIDIKORA UZTAILAREN 9KO 903/2010 ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ EKARRI ZENA) JARRAIKI.

Kontrolatu beharreko fenomenoaren izaera aintzat harturik, ondoko arrisku-maila hauek ezartzea proposatu da abisu-, alerta- eta alarma-atalaseak zehazteko:

Abisu horia: normaltasun egoera. Arrisku txikia aurreikusi da. Kontrol-atalaren maila bat dator gutxi gorabehera ibaiak gainezka egiteko behar duen emariaren % 80ri loturikoarekin.

Alerta laranja: ezohiko egoera. Kontrol-atalaren maila bat dator ur-lamina lehen kalteak (lehen errepidea moztea edo lehen eraikina urez betetzea) egin arte igotzen duen emariarekin.

Alarma gorria: muturreko egoera. Kontrol-atalaren maila bat dator uholde larria eragiten duen emariarekin.

Maila horiek etengabe ari gara aztertzen eta eguneratzen. Horien jarraipena larrialdietarako sarrera mugatuko aplikatiboaren bidez egin daiteke uholdeak zaintzeko atalean:

www.euskalmet.euskadi.net/meteoadversa/portada.html

Baita Euskalmeten web-orrian, uholdeen jarraipena egiteko atalean, ere.

<http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/home.apl?e=8>

Horiz jartzen dira ur-emaria neurtzeko estazioak baldin eta beren mailak 2016ko otsailaren 27tik aldatu badira.

Jarraian, mailen egoera 2016ko martxoaren 17an:

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak			PE-005	
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenera, zaintza eta berorien aurreko jarduerak			Berrikuspena: V-10	
			Data	Orr.
			2018/06/14	27/36

ARROA	IBAIA	UR-EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOA	UDALERRIA	Maila horia (m)	Maila laranja (m)	Maila gorria (m)
ZADORRA	STA ENGRAZIA	OTXANDIO (C054)	OTXANDIO	2,70	3,10	3,30
	BARRUNDIA	OZAETA (C055)	BARRUNDIA	1,35	1,85	
	ZADORRA	ETURA (C0AA)	BARRUNDIA	2,45	2,75	
	ALEGRIA	ALEGRIA (C056)	ALEGRIA-DULANTZI	1,80	2,10	2,40
	ZADORRA	ABETXUKO (C076)	VITORIA-GASTEIZ	2,00	2,50	3,00
BAIA	BAIA	SARRIA (C0A0)	ZUIA	1,20	1,50	
KADAGUA	KADAGUA	BALMASEDA (C0C2)	BALMASEDA	1,90	2,50	2,90
	KADAGUA	ARANGUREN (C0C1)	ZALLA	3,10	3,50	4,30
	KADAGUA	SODUPE-CADAGUA (C0C3)	GUEÑES	1,60	1,90	2,30
	HERRERIAS	SODUPE-HERRERIAS (C0C3)	GUEÑES	2,25	2,60	3,00
IBAIZABAL	IBAIZABAL	ELORRIO (C074)	ELORRIO	1,50	1,80	
	MAÑARIA	MAÑARIA (C0B7)	IZURTZA	1,30	1,50	
	IBAIZABAL	BERNA (C0B6)	IURRETA			
	IBAIZABAL	AMOREBIETA (C079)	AMOREBIETA	2,75	3,25	3,80
	ARRATIA	URKIZU (C0B3)	IGORRE	3,20	3,90	
	ARRATIA	ZEANURI (C008)	ZEANURI	2,75	3,00	3,25
NERBIOI	ALTUBE	OROZKO (C0B4)	OROZKO	2,10	2,40	
	ALTUBE	ARETA (C032)	LAUDIO	1,50	2,00	
	NERBIOI	SARATXO (C051)	AMURRIO	1,75	1,95	
	NERBIOI	GARDEA (C067)	LAUDIO	1,80	2,05	
	NERBIOI	ZARATAMO (C0B2)	ZARATAMO	5,20	6,00	
BILBOKO ITSASADAR.	NERBIOI - IBAIZABAL	ABUSU (C0B1)	ARRIGORRIAGA	4,00	4,60	5,00
	NERBIOI - IBAIZABAL	LA MERCED (C0B0)	BILBAO	4,00	4,30	4,50
	ASUA	SANGROIZ (C0B9)	SONDIKA	2,50	3,00	3,50
	GOBELA	LARRAÑAZUBI (C0B8)	GETXO	1,70	2,45	
BUTROE	BUTROE	MUNGIA (C057)	MUNGIA	5,50	6,00	
	BUTROE	GATIKA (C005)	GATIKA	4,50	5,25	5,60
	ESTEPONA	BAKIO (C004)	BAKIO	1,50	2,00	
OKA	OKA	MUXIKA (C063)	MUXIKA	2,50	3,00	
LEA	LEA	OLETA (C0BA)	AMOROTO	2,40	3,00	

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak			PE-005	
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenera, zaintza eta berorien aurreko jarduerak			Berrikuspena: V-10	
			Data	Orr.
			2018/06/14	28/36

ARROA	IBAIA	UR-EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOA	UDALERRIA	Maila horia (m)	Maila laranja (m)	Maila gorria (m)
ARTIBAI	ARTIBAI	IRUZUBIETA (C0BD)	ZIORTZA-BOLIBAR	1,95	2,55	
	ARTIBAI	BERRIATUA (C0BE)	BERRIATUA	2,00	2,50	
	URKO	MARKINA (C006)	MARKINA	2,50	3,00	3,40
BIDASOA	BIDASOA	BEHOBIA (C084)	IRUN	5,60	5,85	
	JAIZUBIA	JAIZUBIA (C083)	IRUN	1,60	1,90	2,50
OIARTZUN	OIARTZUN	OIARTZUN (C0F4)	RENTERIA	1,50	2,00	2,50
URUMEA	URUMEA	AÑARBE (C080)	OIARTZUN	1,20	1,50	
	URUMEA	EREÑOZU (C0F0)	HERNANI	1,50	2,00	2,50
	URUMEA	MARTUTENE (C081)	DONOSTIA	3,80	4,50	
	URUMEA	TXOMIN ENEA (C082)	DONOSTIA	3,30	3,65	
ORIA	ESTANDA	ESTANDA (C0E7)	BEASAIN	1,40	1,75	2,10
	AGAUNTZA	AGAUNTZA (C0E5)	LAZKAO	1,30	1,60	1,90
	AMUNDARAIN	AMUNDARAIN (C0E1)	ZALDIBIA	1,20	1,70	2,10
	ORIA	ALEGIA (C0E9)	ALEGIA	1,80	2,30	
	ARAXES	ARAXES (C0E8)	LIZARTZA	1,50	2,00	
	ZELAI	BELAUNTZA (C0EA)	BELAUNTZA	0,90	1,10	1,30
	LEITZARAN	ANDOAIN (C077)	ANDOAIN	1,80	2,00	2,30
	LEITZARAN	AMERAUN (C052)	BERASTEGI	2,00	2,75	3,25
	ORIA	LASARTE (C0EC)	LASARTE-ORIA	2,50	3,50	4,20
UROLA	UROLA	AITZU (C0DB)	ZUMARRAGA	1,20	1,60	
	IBAI-EDER	MATXINBENTA (C0DE)	BEASAIN	0,60	0,80	
	IBAI-EDER	IBAI EDER (C0DC)	AZPEITIA	0,90	1,20	1,50
	UROLA	AIZARNAZABAL (C0DD)	ZESTOA	1,80	2,50	3,00
DEBA	URKULU	URKULU (C0D0)	ARETXABALETA	0,70	0,80	
	OÑATI	OÑATI (C0D1)	OÑATI	2,00	2,40	2,80
	EGO	EIBAR (C085)	EIBAR	2,00	2,50	
	DEBA	SAN PRUDENTZIO (C0D2)	BERGARA	1,50	1,90	2,30
	AIXOLA	AIXOLA (C0D3)	ELGETA	0,50	0,60	
	DEBA	ALTZOLA (C078)	ELGOIBAR	3,25	3,75	4,50

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	29/36

II. ERANSKINA – ABISUEN MAILA ZEHAZTEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK ETA ALDAGIAK

Euriteen kasuan:

- Lurraren hezetasuna.
- Ibaien egoera (oraingo maila eta aurretik izandakoa).
- Ibaiaren / ibaien maila igotzeko abiadura.
- Urtegien maila.
- Prezipitazioaren zonifikazioa.
- Euri-mota (iraunkortasuna eta intentsitatea).
- Landarediaren egoera eta urteko sasoia.
- Estimaturako lurruntze-transpirazioa.
- Gertaera nabarmenak eraginpean egon daitezkeen eremuetan.
- Uraren Euskal Agentziarekin (URA) izandako elkarrizketak.

Elurteen kasuan:

- Elurra espero den ordua.
- Espero den zirkulazioa.
- Ondoren izozteak izango diren ala ez.
- Prezipitazio-mota. Etengabeak edo aldizkakoak.
- Txingorra egingo duen ala ez.
- Elur-prezipitazioa espero den tenperatura.
- Elurra lur bustian edo lehorrean eroriko den.
- Prezipitazioari lotutako haizea. Elurtegiak sortu diren.
- Elkarrizketak Trafiko Zuzendaritzarekin (eta foru-aldundietako errepideen zuzendaritzekin).



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	30/36

Haizeteen kasuan:

- Haizea espero den ordua.
- Eraginpean egon daitezkeen eremuak.
- Aldaketaren tupustekotasuna.
- Muturreko beste fenomeno batzuk gertatuko diren.
- Gertaera bereziak eraginpean egon daitezkeen eremuetan.

Temperatura negatiboen kasuan:

- Errepidean izotz zuria sor daitekeen ala ez.
- Izotz beltza sor daitekeen ala ez.
- Eraginpeko eremuak.
- Gertaeraren iraupena.
- Zirkulazioari lotutako arazoak.
- Elkarrizketak Trafiko Zuzendaritzarekin (berdin foru-aldundietako errepideen zuzendaritzekin).

Muturreko temperatura altuen kasuan:

- Espero den sentazio termikoa (tenperaturak, haizeteak eta hezetasun erlatiboak).
- Urteko sasoia (udaren hasiera edo amaiera eta asteburua den ala ez).
- Fenomenoaren iragargarritasuna. Iragarpenen dispertsioa.

Temperatura altu iraunkorren kasuan:

- Udako sasoia (hasiera edo amaiera).
- Aurreko egunetako tenperaturak.
- Osasuneko Zuzendaritzaren gomendioak.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	31/36

Denboraleen kasuan (itsaso-kostakoak):

- Urteko sasoia (uda den ala ez).
- Olatu-motak (hondoko itsasoa, haize-itsasoa, itsaso nahasia, kaotikoa,...).
- Olatuen ezaugarriak (altuera esanguratsua, puntako altuera, aldiak,...).
- Haizea.
- Antolatutako kirol-jarduerak.

Enbaten edo antzerakoen kasuan (itsaso-kostakoak):

- Udako sasoia (hasiera edo amaiera).
- Enbata sartzea espero den ordua.
- Asteburua edo jaieguna den.
- Abuztua den ala ez.
- Kirol-jarduerak.

Kostaldean eragina dagoenerako (itsaso-kostakoa):

- Olatuen aldagaiak; altuera esanguratsuak, aldiak eta puntako aldia, norabidea eta ordua.
- Marearen aldagaiak; astronomikoa, meteorologikoa eta ordua.
- Gaiinditzearen aldagaiak.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpenera, zaintza eta berorien aurreko jardura	2018/06/14	32/36

III. ERANSKINA – PLANEN, PROGRAMEN ETA PROZEDUREN ZERRENDIA

- «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» Euskadiko Babes Zibileko Plana (EHAA, 138. zk., 1997ko uztailaren 21ekoa).
- “Larrialdiei Aurregiteko Bidea – LABI” Euskadiko Babes Zibileko Planaren ohiz kanpoko berrikuspena. Urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretua (EHAA, 14. zk., 2015eko urtarrilaren 22koa).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Uholde Arriskuari Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015/10/13ko bileran onartutakoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko baso-suteen kontrako Larrialdi Plana (EHAA, 55. zk., 1998ko martxoaren 23koa).
- Zadorrako Urtegietan Ur Altuen Egoeretan Jarduteko Prozedura.
- Neguko Bidezaintza Plana.
- Tenperatura altu iraunkorren eta muturreko tenperatura altuen egoeretan jarduteko prozedura.
- Herrizaingoko sailburuaren Agindua, 2007ko martxoaren 20koa, Larrialdiei Aurregiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak aldatzen dituen.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	33/36

IV. ERANSKINA – KOMUNIKATUAK JASOKO DITUZTEN ERAKUNDEEN ETA ZERBITZUEN GUTXIENEO ZERRENDATA (*)

(*) Datu-baseak gutxienez hemen zerrendatutako erakundeak eta zerbitzuak bilduko ditu. Dena den, beste erakunde eta enpresa batzuk gehitu ahalko dira, baita gertaerak eraginpean har ditzakeen partikularrak ere. Datu-baseak informazio dinamikoa biltzen duenez, ez da horren deskripzio zehatza egiten atal honetan. Horrenbestez, zerrenda orientagarria da.

Euriaren ondoriozko muturreko fenomenoaren jakinarazpena:

- Ertzaintzaren AKZ (Ardatz)
- Osakidetzako Larrialdiak
- Foru-aldundien Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Gobernuaren Ordezkariordeztza
- Udalen / Aiarako Partzuergoko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Foru-aldundien Hidrologia Arloa
- Bilboko / Donostiako / Gasteizko udalak.
- Foru-aldundien mendi-zerbitzuak
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide-zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE / ADIF / Metro Bilbao.
- Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde-ordezkaritzaren uraren zuzendaritzak.
- URA
- EAEko udalak.
- Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa / AMVISA / Añarbeko Urak.
- Autobideak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

PROZEDURA JARRAITZEAREN ETA EGUNERATZEAREN ARDURADUNA: Jose Antonio Aranda



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	34/36

Elurraren ondoriozko muturreko fenomenoaren jakinarazpena:

- Ertzaintzaren AKZ (Ardatz)
- Osakidetzako Larrialdia
- Foru-aldundien Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Gobernuaren Ordezkariordeztza
- Udalen / Aiarako Partzuergoko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Bilboko / Donostiako / Gasteizko udalak.
- Foru-aldundien mendi-zerbitzuak
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide-zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE / ADIF / Metro Bilbao.
- EAEko udalak.
- Autobideak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

Haizearen ondoriozko muturreko fenomenoaren jakinarazpena:

- Ertzaintzaren AKZ (Ardatz)
- Osakidetzako Larrialdia
- Foru-aldundien Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Gobernuaren Ordezkariordeztza
- Udalen / Aiarako Partzuergoko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Bilboko / Donostiako / Gasteizko udalak.
- Foru-aldundien mendi-zerbitzuak
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide-zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE / ADIF / Metro Bilbao.
- Arrantzaleen kofradiak.
- Kofradien federazioa.
- Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.
- EAEko udalak.
- Autobideak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	35/36

Muturreko tenperaturen ondoriozko muturreko fenomenoaren jakinarazpena:

- Ertzaintzaren AKZ (Ardatz).
- Osakidetzako Larrialdiak
- Gobernuaren Ordezkariordeztza
- Foru-aldundien Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Udalen / Aiarako Partzuergoko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Bilboko / Donostiako / Gasteizko udalak.
- Foru-aldundien mendi-zerbitzuak.
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide-zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE / ADIF / Metro Bilbao.
- EAEko udalak.
- Autobideak.
- Osasun Saila.
- Ingurumen Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.



LAEMZren prozedurak	PE-005	
	Berrikuspena: V-10	
	Data	Orr.
Fenomeno meteorologiko kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduera	2018/06/14	36/36

Itsaso-kostako arriskuaren ondoriozko muturreko fenomenoaren jakinarazpena:

- Ertzaintzaren AKZ (Ardatz)
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza
- Osakidetzako Larrialdiak
- Gobernuaren Ordezkariordeztza
- Foru-aldundien eta Donostiako Udalaren Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Arrantzaleen kofradiak.
- Kofradien federazioa.
- Ur-kiroletako klubak.
- Salbamendu eta Sorospeneke Euskal Federazioa.
- Foru-aldundien hondartza-zerbitzuak.
- Donostiako Udaleko hondartzen zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Portuen Zuzendaritza.
- EAEko kostaldeko udalak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.